



Arartekoaren 9/2011 gomendio orokorra, azaroaren 29koa

Gizarte prestazioak jasotzeko eskubidea bertan behera uztearen eta horretarako erabilitako moduen ondorioak. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria.

I. Sarrera

Duela zenbait hilabete Ararteko erakundeak erregistratu du diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen duten pertsonen aurkeztutako kexa kopuruak modu nabarmenean gora egin duela. Kexek prestazioen etetea dute hizpide. Kasu askotan, Ararteko erakundeak irregulartasunen bat antzeman du araudi erregulatzailearen aplikazioan, bereziki, prozeduren gaineko arauak ez aplikatzeari dagokionez. Erakunde honek uste du, araudi hori bereziki zaugarria den kolektibo bati zuzenduta dagoela aintzat hartuta, aplikatu daitezkeen berme guztien eta bakoitzaren betetzea zehaztasun handiagoarekin burutu behar dela. Are gehiago gaur egun; izan ere, krisi ekonomikoaren eta gizarte gastuko aurrekontuen murrizketen ondorioz, gizarte bazterkeria egoeran edo hori pairatzeko arriskuan dauden pertsonen zaugarritasuna handitu egin da. Araudia modu zuzenean aplikatzen dela ziurtatzen duten bermeak modu hertsian ez betetzea eta, oro har, prestazioak jasotzeko eskubidea eteteari ekitea, zenbait kasutan beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu gabe, gomendio honen ardatzak izango dira.

Zehazki, bi arrazoi daude kezkatuta egoteko. Alde batetik, jasotzaileei maiztasun gutxirekin ematen dietela entzunaldi izapiderako hitzordua euren eskubidearen etetearen aurrean dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izateko, bai eta alegazio horiek ondorengo ebazpenean duten eragin txikia. Zentzu horretan, antzeman da aldundiek askotan ez dizkietela inguruabar horiek jasotzaileei jakinarazten eta horrek kasu askotan babesgabetasun egoera argiak eragin ditu; izan ere, askotan jasotzaileek eteteari buruz jasotzen duten lehenengo berria prestazioaren ordainketarik eza da.

Bestalde, jasotako kexa ia guztiek prestazioa jasotzeko eskubidearen etetea dute hizpide; horrek esan nahi du, beste gauza batzuen artean, ezin dituztela zenbatekoak jaso nahiz eta eteteko arrazoirik ez dagoela frogatu. Jaso ditugun kexen artean, soilik gutxi batzuk (Bizkaian batez ere) prestazioen ordainketaren kautelazko eteteak eragin ditu.

Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen helburu nagusiak, xedeen azalpenean ezarri den moduan, hauexek dira: diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema, sistema autonomo gisa indarrean jartzea eta eskubideen gauzatzea bermatzen duen eta horien estaldura eremua zabaltzen duen eredu baten oinarriak ezartzea. Hori guztia ez bakarrik gizarte bazterkeriari lotutako arazo bati erantzuna emate aldera, baita



urritasun ekonomikoko (zentsu hertsian) egoerei aurre egiteko ere; izan ere, arazo horien konponbideak batzuetan ez dauka zerikusirik gizarteratzeko tresnen erabilerarekin. Helburuak lortzeko bide nagusia laneratzea da, hortaz, mai 18/2008 Legeak barne hartzen dituen prestazioek nahikoak ez diren laneko diru-sarrerak osatzeko balio dute. Jakin badakigu berehala, enplegu politika aktiboen eskumena Lanbideri eskualdatzearen ondorioz, erregimen horrek zenbait aldaketa jasango dituela. Dena den, jaso ditugun kexen bolumena eta ardura duten administrazioek une honetan indarrean dagoen araudia aplikatzeari dagokionez antzemandako arazoak aintzat hartuta, egokitzat jo dugu izaera orokorra duen gomendio hau argitaratzea.

18/2008 Legea hiru dekreturen bitartez garatu da, horietako bakoitzak izaera ekonomikoa duten hiru prestazio nagusietako bakoitza berariaz arautzen du. Hauek dira dekretuak: diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua; etxebizitzarako prestazio osagarriaren inguruko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua; eta gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua. Prestazio horietatik, lehenengo biak eskubide subjektibotzat jotzen dira, hirugarrenak, berriz, diru-laguntza izaera dauka. Izaera hori da hain zuzen ere, nahitaez aldi-analdikoak ez diren gizarte larrialdietarako laguntzekin batera, azken horien tratamendua beste bi prestazioei ematen zaien tratamendu bera ez izatearen arrazoia. Hori dela eta, gomendio honek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria izango ditu hizpide, noizean behin gizarte larrialdietarako laguntzak aipatuko diren arren.

18/2008 Legeak zein zenbait prestazio garatzen dituzten dekretuek, prestazioen titulartasuna mantentzeko beharrezkoak diren baldintzak galduz gero, jasotzaileek eginbeharrak bete ez badituzte edo oso larriak diren arau-hausteak gertatu badira aplikatu beharreko neurriak ezarri dituzte.

Ikuspuntu sistematiko batetik abiatuta, eginbeharrak betetzen ez diren, baldintzak mantentzen ez diren edo oso larriak diren arau-hausteak burutu diren kasuetarako aurreikusitako neurriak araudiaren zenbait ataletan banatuta daude: eskubidea etetea eta iraungitzea prestazioak berraztertzeke eta aldatzeko atalekin batera arautzen dira, arau-hausteen definizioa eta zigorren ezartzea, aldiz, araubide zehatz batek erregulatzen ditu. Zenbait titulu edo, hala badagokio, kapitulu zehatz horri buruzkoak dira.

Horrela, prestazioak jasotzeko eskubidearen etetea 18/2008 Legearen 26. artikulutik 28. artikulura (diru-sarrerak bermatzeko errenta) eta 41etik 43ra (etxebizitzarako prestazio osagarria) arautzen da; 147/2010 Dekretuaren V. kapituluko 43-52 artikuluetan (diru-sarrerak bermatzeko errenta berraztertzeke, aldatzeke, eteteke eta iraungitzeke buruzkoa) eta 2/2010 Dekretuaren III. kapituluko 24-33 artikuluetan (etxebizitzarako prestazio osagarria berraztertzeke, aldatzeke, eteteke eta iraungitzeke buruzkoa). 4/2011 Dekretuak, aldiz, ez du gizarte larrialdietarako laguntzen etetea xedatzen, ez baita aldi-an behingoa, hortaz, soilik xedatu du okerreko kobrantzen ondorioz zorra pilatzeko aukera, diru-laguntza izaera duen prestazio hori modu irregularrean jasotzen bada (logikoa denez,



xedapen hori diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren kasuan ere aplikagarria da, eskubidearen etetea edo iraungitzea alde batera utzita). Gizarte larrialdietarako laguntza eteteko aukera, aldiz, 18/2008 Legearen barruan dagoen zigortzeko neurri bat da; izan ere, 105. artikulua oso larriak diren bi arau-hauste eginez gero, gizarte larrialdietarako laguntzak eteteko aukera xedatu du.

Lurralde bakoitzeko foru aldundiaren eskumena da diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eteteko eta iraungitzeko aukerari buruzko erabakiak hartzea, 18/2008 Legearen 87. artikuluaekin bat eginez (147/2010 Dekretuaren 55.1 artikulua eta 2/2010 Dekretuaren 33.1 artikulua). Dena den, prozedurari hasiera ematea udalei ere dagokie (147/2010 Dekretuaren 53.1 artikulua eta 2/2010 Dekretuaren 31.1 artikulua).

Dagoeneko aipatu dugun moduan, arau-hausteen eta zigorren gaineko araubideak tratamendu desberdina jasotzen du ikuspuntu sistematiko bat oinarritzat hartuta; izan ere, arau multzoetan atal eskusiboak ditu:

- Hala, 18/2008 Legearen VII. titulua horri buruzkoa da.
- 147/2010 Dekretuaren VII. kapitulua horren gainekoa da, zenbait prozedura arau besterik ezarri ez baditu ere, zigortzeko araubide bat kontsultatu nahi izanez gero, 18/2008 Legea igortzen du.
- 2/2010 Dekretuak, bere aldetik, xedapen gehigarri baten bidez, 18/2008 Legeko zigortzeko araubidera igortzen du, bai eta 147/2010 Dekretuaren prozedura arauetara ere.
- Azkenik, 4/2011 Dekretuak, prestazioaren etetearekin eta iraungitzearekin gertatzen den bezala, ez du inolako zigortzeko araubide zehatzik ezarri eta modu bidegabean jasotako zenbaketen itzulera besterik ez du aipatzen.

Azalpen honi dagokionez, garrantzitsuena da adieraztea prestazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea eteteak izaera zigortzailea izan dezakeela arau-hauste bat baino gehiago pilatzen direnean, betiere, horietako bi gutxienez oso larriak badira.

II. Prestazioen eteteari dagokionez, indarrean dagoen araudiaren azterketa

II.1. Prestazioak jasotzeko eskubidea etetea (eta iraungitzea)

18/2008 Legearen 26. artikuluaekin bat eginez, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea hiru kasutan gertatu daiteke:

- Prestazioa emateko eskatzen diren baldintzetako bat behin-behinean galdu izana.



- Prestazioa onartzerakoan bere gain hartutako eginbeharretako bat bete ez izana (zehazki, gizarteratze hitzarmen bat negoziatu edo sinatzeko aukerari uko egin izana, hori ez betetzea edo, hala badagokio, lanerako prest ez egotea edo lan baldintzetan hobekuntzei uko egin izana).
- Arau-hauste bat baino gehiago burutu izana.

Bestalde, 41. artikulua arabera, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea honako arrazoi hauengatik eteten da:

- Etxebizitza alokatzearen ondoriozko gastuak behar bezala ez egiaztatzea.
- Arau-hauste bat baino gehiago burutu izana.
- 34. artikuluan ezarritako eginbeharren bat bete ez izana.
- Gainera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarria denez, eten egingo da beste prestazio hori eteten denean, neurri hori hartzea eragin duen arrazoa alde batera utzita.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren araubidea garatu duten dekretuek eteteko bi arrazoi zehatz eta berri gaineratu dituzte: bizikidetzaren unitateak (BU) izan dituen aldaketak epe barruan ez jakinaraztea, 147/2010 Dekretuari jarraiki (43.2 artikulua), diru-sarrerak bermatzeko errentaren kasuan eta, etxebizitza aldatuz gero, prestazioa jasotzeko baldintzen betetzea ez egiaztatzea, 2/2010 Dekretuaren kasuan (24.2 artikulua) etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokionez.

Adierazi dugun moduan, aipatutako manuak irakurri eta gero, ondorioztatu daiteke prestazioa jasotzeko eskubidea eteteko baldintzetako bat behin-behinean galtzea, bere gain hartutako eginbeharrak behin-behinean ez betetzea edo arau-hauste bat baino gehiago burutzea beharrezkoa dela.

Hala eta guztiz ere, noizean behin gertatu da egoera baten zantzuak daudela eta egoera egiaztatuz gero, prestazioa onartzeko eginbeharretako bat galdu dela esan nahi du, hortaz, egiaztatu behar da. Kasu horietan, legeari jarraiki, prestazioaren ordainketa kautelaz eten beharko zen eta hiru hilabeteko epea ezarri beharko zen beharrezkoak diren baldintzetako bat galdu ote den egiaztatzeko edo, kontrakoa, hau da, baldintzetako galdu duela pentsarazten duen arrazoirik ez dagoela baieztatzeko.

Lehenengo kasuan, kautelazko neurria prestazioa jasotzeko eskubidearen etete edo iraungitze bihurtuko da, bigarren kasuan, aldiz, prestazioa mantentzeaz gain, jaso ez dituen zenbatekoak ordainduko dira, ez baitago inolako irregulartasunik.

Etxebizitzarako prestazio osagarria eteten bada, egoera antzerakoa da. 18/2008 Legearen 41. artikulua eten egin behar dela dio, ondorengo kasuan *“titularrak lege honen 34. artikuluan jasotako baldintza edo eginbeharren bat*





betetzen ez badu". Kautelazko neurri gisa ordainketa eteteari dagokionez, 42. artikulua dio neurri hori honako kasuan hartuko dela "*baldin eta zantzuren batzuk detektatzen badira prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko edo mantentzeko eskatutako baldintzetakoren bat galdu dela adierazten dutenak*". 41. artikulua irregularitasunaren iragankortasuna berariaz xedatzen ez badu ere, ondorioztatu daiteke; izan ere, irregularitasunak konpontzeko aukera manuaren 6. puntuan aipatzen da ("*etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan dauden ala ez egiaztatuko da, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da [...]*").

Eteteen iraupenari dagokionez, bai diru-sarrerak bermatzeko errentaren kasuan, bai etxebizitzarako prestazio osagarriaren kasuan, araudiak xedatu du amaituko dela etetea eragin zuten arrazoiak indarrrik gabe geratzen direnean, betiere, denborari dagokionez luzatzen den etete batek izan ditzakeen ondorio negatiboak arintzen saiatuz. Dena den, zenbait salbuespenek printzipio orokor horren kontrakoa diote: hala, 147/2010 Dekretuaren 45. artikulua hilabete bat eta hiru hilabete bitarteko eteteak ezarri ditu gizarteratze hitzarmena betetzen ez duten kasuetarako; horiek legean xedatu ez diren zenbait ondorio dira; adierazi den moduan, legeak ezarritako araubidea ez da dekretuek garatu dutena bezain zorrotza. Edonola ere, eteteak ezin du 18 hilabete baino gehiago iraun eta denboraldi hori gainditzen badu prestazioa iraungi egingo da. Etetearen gehienezko iraupenaren inguruko azken xedapen hori, etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokionez, neurri horren iraupenaren gainean dagoen erreferentzia bakarra da (2/2010 Dekretuaren 26. artikulua).

II.2. Prestazioa jasotzeko eskubidea etetea zigortzeko erregimenaren bidetik

Adierazi den moduan, etetea erregulatzen duen araudiak neurri hori hartzeko hirugarren egoera gisa xedatzen du arau-hauste bat baino gehiago jazo behar dela (horietako bi oso larriak) eta kasu jakin batzuetan zigortzeko erregimenari lotzen zaio. 18/2008 Legearen 105.4 artikulua prestazioen eteteari zigor osagarriaren izaera ematen dio; alegia, jasotzaileak gutxienez bi arau-hauste oso larri egin ondoren har daitekeen bidetzat hartzen da. Ildo horretan, etete horren izaera ez da argi geratzen, aipatu manua 26.1.c eta 41.2.b artikuluek hizpide duten etetearen ziozkoa baita. Hala ere, eteteari lotuta dauden zigortzeko beste neurri batzuk hartzeko aukera barne hartzen da, adibidez, lehenengo aldian prestazioaren zenbatekoa % 20 murriztea eta bigarren aldian, berriz, % 50, etetea eragiten duen arau-haustea egitea, baita urtebetez prestazioak eskuratzeko ezintasuna ere; horretatik ondorioztatzen da etete hertsatzaileak gehienez ere urtebeteko epea duela. Hirugarren aldiz arau-haustea eragiten duten ekintzak gauzatzeak prestazioa iraungitzea eta prestazio horiek bost urte igaro arte berriro ezin eskatzea dakar.





III. Balorazioa

Azken bi urteetan Arartekoan prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea etetea hizpide zuten kexa asko mahaigaineratu dira (diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria). Urte honen erdian gai hori hizpide izan duten kexak 145 izan dira. Ia kexa horiek guztiak, bereziki Araban, prestazioa jasotzeko eskubidearen eteteari buruzkoak dira eta kasu horietako ezeinetan ez da aplikatu aurretiko kautelazko neurririk.

Kexa horietako askotan, gainera, antzeman da aipatzen ari garen araudian diseinatutako berme neurriak nolabait gutxitu direla.

Aipatu kexetan gailendu beharreko zenbait alderdi egiazta daitezke:

- **Prestazioa jasotzeko eskubidea eteteko eskusibotasuna eta kautelazko etetearen neurrien aplikaziorik eza.**

Aurretik aipatu dugun moduan, 18/2008 Legearen 26. eta 41. artikulua eta aipatu legearen araudi-garapena oinarri hartuta ia kexa guztiek hizpide duten gaia prestazioa jasotzeko eskubidea etetea denez, hori horrela izateak esan nahi du etete horrek arauz lotuta eta xedatuta dauden ondorioak ekarriko dituela eta, zenbait kasutan, oso negatiboak direla prestazioaren jasotzaile diren eragindakoentzako. Hala ere, oso kasu zehatzetan hitz egin ahalko da baldintzaren galerari edo betebeharraren ez-betetzeari buruz.

Dena den, kasu askotan adierazle askoren aurrean egon gaitzke baina kontua da aipatu adierazleak egiaztatu egin behar direla. Kasu horietan prestazioaren ordainketa eteteko kautelazko etetera jo beharko da.

Arartekoak kexak izapidetzerakoan antzeman duen kasuistika era askotakoa da. Hain zuzen, honako egoera hauei buruz ari gara: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan alokairuaren ordainagiriak data jakin batean ez aurkeztea, etxean ez egotea ikuskapena egiten denean, telefonoari ez erantzutea, etxebizitzan bakarrik bizi ez dela dioten auzotarrak, etab. Arartekoak etete irmoa bideratu den kasu horien guztien berri dauka eta, gure ustez, ordainketa kautelaz eten behar izan zen galera edo ez-betetzea berretsi arte.

Praktika hori eragindakoentzat oso larria da azkenean baldintzaren baten benetako galeratzat jotzen diren adierazleak berresten ez direnean.

lido horretan, esan behar da diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eten zaien pertsonen zenbatekoa jasotzeari utzi diotela, dirua itzul dezaten aukera bat eman gabe, baita eteteari ekiteko administrazioak emandako arrazoia egon ez zegoela agerian jarritako kasuetan ere (gogora dezagun diru-itzulketarik eza prestazioa jasotzeko eskubidea eteteko ezaugarrietako bat dela). Hala, kautelazko



etetearen modua aukeratu ez denez, jasotzaileak baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duenean (praktikan administrazioak ekintza horri prestazioa "berriro aktibatzea edo berriz ekitea" izena ematen dio), egiazki, eten zen prestazioaren antzeko funtsezko ezaugarriak dituen prestazio berri bat da. Alegia, kasu askotan aipatu prestazioa eten ondoren, ez da berriro aktibatzen, prestazioa iraungi eta berri bati ekiten baitzaio. Oro har, lehenengo prestazio horren zioz (ondoren iraungitakoa) bidegabe jasotako zenbatekoaren ondotik sortutako zorreratik murrizten da, jaso ez diren zenbatekoak berreskuratzeko eskubiderik gabe.

- **Bidegabe jasotako kobrantzak**

Aipatutako praktiken artean garrantzi handiko bigarren arazo bat sortzen da, prestazioak jasotzen dituen taldeari dagokionez. Arazoa bidegabe jasotako kobrantzen ondotik zorrak sortzea da, hain zuzen. Zor horiek sortzen dira prestazioa jasotzen duen pertsonak ez zegokion zenbateko bat jasotzen duenean, arrazoiak edozein dela ere. Ordainketa kautelaz eteten bada, etetea eragin duen adierazlea berresten denean bakarrik sortzen da; bestela, kautelazko etetea indarrean egon zen aldiaren zehar jasotzeari utzitako zenbatekoak administrazioak itzuli behar ditu (gogora dezagun ezin dela hiru hil baino luzeagoa izan). Bidegabe jasotako kobrantzaren zioz zorra sortzea Arartekoaren aurrean aurkeztutako kexa ia guztiek aipatzen duten ezaugarri bat da: foru aldundiek, betebeharren bat konplitzen ez dela edo baldintzaren bat galtzen dela antzematen dutenean, eskubidea eteten dute, etete hori eragiten duen gertaera jazo dela ulertzen den unetik, eta jasotzaileak, prestazioa "berriro ekiten" dela alde batera utzita, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli behar ditu. Zor horietako batzuk zenbait kasutan 25.000 euroko zenbatekoa gainditu dute, eteteko ebazpena emateak luze jotzen duenean.

Egoera horri gehitu behar zaio, prestazioa jasotzeko eskubideari "berriro ekin" ondoren jasotzen den zenbatekotik okerreko kobrantza gisa kuotaren zati bat kentzen hasten denean, helarazi dizkiguten kexa ia guztietan gehienez interesdunaren diru-sarreraren % 30 deskontatzen dela, araudiak zenbateko txikiagoa aplikatzeko aukera ematen badu ere, betiere, kasu bakoitzaren ezaugarrien eta egoeren arabera (147/2010 Dekretuko 57.5 artikulua eta 2/2010 Dekretuko 35.4 artikulua % 30 daukate hizpide, gehienezko ehunekoari dagokionez).

Azkenik, aldundiei behin baino gehiagotan ekarri zaie gogora (batez ere Arabako Foru Aldundiari) bidegabe jasotako kobrantzari ekiteko betebeharra, horretarako prozedura berri bat irekita, 147/2010 Dekretuko 57. artikulua eta 2/2010 Dekretuko 35. artikulua xedatzen duten moduan. Ildo horretan Arabako foru erakundeari helarazitako zenbait gomendio daude baina ez zaie erantzunik eman.





Hori, gure ustez, oso puntu garrantzitsua da, prestazioak jasotzen dituen taldea oso zaugarria baita. Beharrezkoa da administrazioek modu arduratsuan jardun dezaten etetea atzeraeraginezko ondorioekin gauzatzekoan. Izan ere, adierazi moduan, sortutako kopuru bidegabea zuzenean bazterkeriara eraman dezakeen zifrara hel daiteke.

- **Diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko arrazoi anitzak**

147/2010 Dekretuaren 43.1 artikulua xedatzen du prestazioa eteteko arrazoiak dela diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko beharrezkoak diren baldintzaren bat behin-behinean galtzea. Horrez gain, dekretu horren 43.2 artikulua eteteko arrazoiaren artean barne hartzen du *“titularrak edo bizikidetzaren unitateko kideren batek prestazioa lortzean hartutako betebeharren bat aldi baterako ez betetzea, bereziki dekretu honen 12. artikuluan adierazitakoak eta zehazki honako hauek”*. Jarraian, manuak ez-betetzearen bost berariazko arrazoi biltzen dituen zerrenda bat aipatzen du.

147/2010 Dekretuaren 43. artikulua idazketak, erakunde honen ustez, aukera ematen du etetearen neurria ia egoera guztietan aplikatzeko eta betebeharen baten ez-betetzea edo baldintza baten galeratzea jo daitekeen edozein kausagatik. Prestazioa eteteko arrazoiak argi ez mugatzeak bidea ematen du aukera-sorta zabala edukitzeko prestazioak jasotzen dituen pertsonaren aldetik ekintza jakin bat aurrera eraman eta eteteko arrazoitzat jotzeko. Manuaren idazketa oso zalantzarria da. Izan ere, baldintzen galeraren gaia jorratu ondoren, bigarren paragrafoak, orokorrean, prestazioa eskuratzekoan gain hartutako betebeharen ez-betetzea eta, bereziki, 12. artikuluan aipatutako betebeharrak ditu hizpide, 43.2 artikuluan jasotako bost arrazoi horiek berariaz zehaztuz. Hala, ulertzen dugu, eteteko zenbait arrazoiaren berariazko aipamena alde batera utzita, ez-betetze horiek guztiak (prestazioa eskuratzekoan gain hartutako betebeharen ingurukoak eta 12. artikulua eta 43.2 artikulua aipatutakoak, behin-behinean baldintzak galtzarekin batera) berdin-berdin eteteko arrazoiak direla.

Gure iritziz, eteteko arrazoiak jorratzerakoan azalpena argia ez izatea eta, bereziki, legezko testuan zehar sakabanatuta egotea segurtasun juridikorik ezaren egoerak eragin ditzakete, oso zaila baita jasotzaileek jakin dezaten zer ekintzak edo ez-egiteak eragin dezakeen prestazioa etetea.

- **Entzunaldiaren izapidea eta eteteko ebazpenen arrazoiak**

Beste alderdi aipagarri bat da, Arartekoaren aurrean 26. edo 41. artikuluen bidezko eteteen kasu batzuk planteatu direla, auzotarren salaketan ondorioz eta entzunaldirako izapiderik bideratu gabe. Hori horrela, kasu ia gehienetan, ez horietan bakarrik, jasotzaileek etetearen berri izaten dute kasuan kasuko hilaren zenbatekoa kontuan hartzen ez dietela egiaztatzerakoan. Horrek esan nahi du prestazioa jasotzeko eskubidea eten zaien pertsonak ez dutela aukera izan



administrazioak prestazioa eteterakoan aintzat hartutako frogak (edo hala badagokio, adierazleak edo zantzuak) baliorik gabe uzteko; ildo horretan, zenbait kexa gailendu behar ditugu, horietan entzunaldirako izapidea eteteko ebazpenaren ondorengoa baita. Entzunaldirako izapiderik ez bideratzeko ohikotasunari gehitu behar zaio eteteko ebazpenaren idazkian adierazitako arrazoiak ia gehienetan ezezagunak edo oso zalantzazkoak direla eta horrek guztiak babesik gabeko egoera larria eragiten duela.

Horren harira, behar bezalako jakinarazpenak egiteak duen garrantzia nabarmendu behar da, bereziki, ebazpenei eta entzunaldirako izapideei dagokienez. Gorago aipatu den moduan, askotan jasotzaileak prestazioa eten diotela jakiten du bankuko agirian ordainketa egin ez diotela egiaztatzen duenean, kontuan hartuta ebazpena geroagoa jasotzen duela. Gauza bera gertatzen da entzunaldirako izapideekin. Egiten direnean, askotan jakinarazpenen gaineko araudia bete gabe gauzatzen dira (30/1992 Legearen 59. artikulua eta osatzen duten arauak) eta, hala, babesik gabeko egoerak sortzen dira argi eta garbi.

Azkenik, agerian jarri nahi dugu kezkatuta gaudela eteteko espedienteak izapidetzeko kontuan hartu beharreko jarraibideak ezartzea xede duten barne protokoloak egon badaudelako eta horietan araudiak ematen dituen zenbait bermeren betetzea berariaz baztertzen da, bereziki, entzunaldirako izapidearen deiarri eta bidegabe jasotako kobrantzen ondotik bideratutako espediente berriak hasteari dagokienez.

Aurretik azaldutako guztiagatik, 3/85 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

IV. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalei egindako gomendio orokorra

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak galdu direla edo eginbeharrak bete ez direla pentsarazten duten adierazleak egonez gero, oro har ordainketaren kautelazko etetea aplikatu dadila prestazioa jasotzeko eskubidea eten beharrean; izan ere, azken hori froga eztabaidaezinak dauden egoerei lotuta dago; kasu horietan, jasotzaileak eteteko arrazoietakoa bat burutu du.
2. Kautelazko etetea eragin zuten adierazleak baieztatzen ez badira, prestazioa berriro aktibatu dadila etetea abian jarri zen unetik aurrera, hau da, jaso ez diren zenbatekoak ordainduz, berriro aktibatuzko prozedura bat abian jarri beharrean; izan ere, praktikan hori prestazio berri bat ematea eragiten ari da.





3. 18/2008 Legearen 26.3 eta 41.6 artikuluek xedatutakoarekin bat eginez, prestazioak jasotzeko eskubidea berriro aktibatze aldera, eteteko arrazoiak desagertu diren unea erreferentziatzat har dadila, eta ez prestazio berri bat aitortzeko izapideak amaitu diren unea.
4. Eteteko edozein neurri hartu aurretik, entzunaldi izapiderako hitzordua eman dadila, alegazioak aurkeztu ahal izateko babesgabetasun egoerak saiheste aldera.
5. Etetea eragin duen ebazpena jakinarazteko erabiltzen diren idazkietan argi eta garbi adieraz dadila zein den ebazpen hori eragin duen arrazoi zehatza.
6. Modu bidegabean jasotako zenbatekoak kobratu behar badira, prozedura berri bat abian jar dadila, dagokion entzunaldi izapidearekin batera, 147/2010 Dekretuaren 57. artikuluan eta 2/2010 Dekretuaren 35. artikuluan ezarritakoa betez.
7. Modu bidegabean zenbatekoak jaso direla egiaztatuz gero, ez dadila modu automatikoan legeak ezarritako gehienezko deskontua aplikatu etorkizuneko prestazioen gainean, hau da, % 30. Horretarako, eragindako bizikidetzaren unitatearen inguruabar partikularrak aintzat hartu behar dira, 147/2010 Dekretuaren 57.5 artikuluan eta 2/2010 Dekretuaren 35.4 artikuluan ezarri den moduan.

